



82 Musika Hamabostaldia Quincena Musical

Donostia
San Sebastián
Abuztua 1-27
Agosto 2021

Forma Antiqua

Aarón, Daniel eta Pablo Zapico anaien proiektu artistikoa da. Asturiasen sortu zen duela bi hamarkada, eta Espainiako musika klasikoko taldeen artean eragin handiena izan duenetako bat izateaz gain, garrantzitsuenetako bat ere bada. Formazio ezberdinetan aritzen dira, hirukotetik hasi eta orkestra barrokoraino, betiere ibilbide erakargarria duten musikariz inguratuta. Modu original eta ausartean egiten diote aurre XVII. eta XVIII. mendeetako erreperitorio osoari. Maiz gonbidatzen dituzte Teatro Real, Zarzuela eta Madrilgo Auditorio Nazionalera, Bartzelonako Palau de la Música, Sevillako Maestranzara, Oviedoko Campoamor Antzokira edo Santanderreko Palacio de Festivales delakora. Espainiako ondarearen enbaxadore izan dira Pragako Rudolfinumen, Bachen obrarenak Eisenachen eta Händelen musikarenak konpositorearen Halleko jaialdian. Forma Antiqua programatzeko gonbidapenak etengabe heltzen dira New York, Canberra, Tokio, Singapur edo Shanghai bezalako hirietatik. 2009tik Winter & Winter kultuzko zigilu alemaniarreko artista eksklusiboak dira. Etengabeko bilakaeran dira beti eta hainbat arlotan aritzen dira, irakaskuntzan nahiz dibulgazioan, edo sektorearen eboluzioarekin engaiatuta: egun Zapico anaiek La Caramba tonadilla egilearen berreskuratze lanetan dihardute, Lázaro proiektuan Oviedoko Katedraleko artxiboko musikarekin edo Farándula castiza-n XVIII. mende erdialdeko sarao instrumentaletarako bidaian.

Es el proyecto artístico en común de los hermanos Aarón, Daniel y Pablo Zapico. Creado en Asturias hace más de dos décadas, está considerado como uno de los más importantes e influyentes de la música clásica en España. Con una formación variable que abarca del trío a la orquesta barroca rodeados siempre por músicos de atractiva trayectoria, abordan de manera original y atrevida la práctica totalidad del repertorio de los siglos XVII y XVIII. Son invitados con regularidad a salas como el Teatro Real, Teatro de la Zarzuela y Auditorio Nacional de Madrid, Palau de la Música de Barcelona, Teatro de la Maestranza de Sevilla, Teatro Campoamor de Oviedo o Palacio de Festivales de Santander. Han sido embajadores del patrimonio español en el Rudolfinum de Praga, de la obra de Bach en Eisenach o de la música de Händel en su festival de Halle. Las invitaciones para programar a Forma Antiqua llegan constantemente de sitios como Nueva York, Canberra, Tokio, Singapur o Shanghai. Desde 2009 son artistas exclusivos de la discográfica alemana de culto Winter & Winter. En constante evolución y activos en numerosos frentes, entre los que destacan la docencia, la divulgación o el compromiso con la evolución del sector, los hermanos Zapico trabajan actualmente en la recuperación de la tonadilla La Caramba, el proyecto Lázaro con música del archivo de la Catedral de Oviedo o Farándula castiza, un viaje a los saraos instrumentales del Madrid de mediados del siglo XVIII.